



AGIRIA

Beheko sinatzaileok argiro adierazi nahi dugu jakin-min handiz segitu ditugula Deba udalerriko lurretan dagoen Praileaitz I leizean azken urteotan eginiko aurkikuntzei buruzko albisteak. Aurkikuntza horien artean, aipamen berezia merezi dute ustez errituertarako erabili ziren sutondo batzuek, margotzeko baliatu ziren okrezko arkatz batzuek eta, batez ere, apainduriko harri beltzez itxuraturiko lepoko batzuek. Erdi Europan azaldu ziren venus paleolitikoen formak dakarzkigu ezinbestean gogora harri beltz horietako baten itxurak.

Ikertzaileen arabera, argi eta garbi erakusten digute aurkikuntza hauek, duela 15.500 urte, erritu batzuei begira erabili zuela leize hau xamantzat har genezakeen pertsonaia berezi batek. Jarduera horien izaerara hurbiltzen laguntzen gaitulakoan erabili dugu xaman hitza. Halatan, molde honetako finkamenduen artean, lehen mailako erreferentzia-gune bilakatu da Praileaitz I aztarnategia Europa guztian, hainbat nazioarteko bilkuratan eta bertan eginiko ikustaldietan mundu guztiko ikertzaileek egiaztatu ahal izan duten bezala. Gainera, haitzuloetako pinturak, puntuak eta marrak, aurkitu berri dira leizearen barruan. Duela 18.000 urteko margolanen aurrean geundek. Aurkikuntza honen arabera, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, hartu beharko da legez Praileaitz I leizea eta, beraz, ezinbesteko betebeharra izango da hura kontserbatzea eta babestea.

Baina aldi berean adierazi behar dugu kezka bihurtu dela gure jakin-mina, esan den guztia esanagatik ere, leizeak oraindik ere harria erauzteko lan handiak, eta haien artean indar handiko leherketak, bideratzen ari diren harrobi baten barruan dirauela egiaztatu baitugu. Ustikuntza-eremuaren eta leizearen artean oso metro gutxi daude eta etenik ez dute orobat leizearen inguruko bidegintza eta baso-soiltze lanek; halatan, bere hondamenetik eta, areago, bere suntsipenetik egunean baino egunean hurbilago dago aztarnategi garrantzitsu hau. Eta, zintzoki esan dezagun, ez dugu Eusko Jaurlaritza ez eta Gipuzkoako Aldundia ere behar bezain eraginkor jokutzen ari direnik uste.

Hau dela eta, agiri honen bitartez jakinarazi nahi izan diegu herritar guztiei geure kezka-berri, eta aldi berean eskatu diegu instituzio ahaldunei aztarnategiaren egiazko babes eraginkorrerako neurriak hartzeko, premia handiz gainera, harrobiko jardunak ez baitu etenik.